

SANTA MARIA KATEDRALA FUNDAZIOAREN ESTATUTUAK (GASTEIZ)

I. TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.- Izena eta izaera

1. Arabako Foru Aldundiaren, Gasteizko Udalaren eta Gasteizko Elizbarrutiko Apezpikutzaren nahia da “Santa Maria Katedrala Fundazioa - Fundación Catedral Santa María” izenarekin irabazi asmorik gabeko Fundazio bat eratzea.
2. Santa Maria Katedrala Fundazioak bere ondarea Fundazioa eratzeko xedeak lortzeari lotuta dauka, eta Estatutu hauek eta aplikatzekoak diren gainerako lege xedapenek arautzen dute xede hori.
3. Fundazioa epe mugagaberako sortu da.

2. artikulua.- Nortasun juridikoa eta gaitasuna

1. Izaera juridiko propioa eta independentea izango du eraketa eskritura Fundazioen Erregistroan inskribatzen denetik aurrera eta guztizko gaitasun juridikoa eta jarduteko gaitasuna izango ditu. Muga bakarrak Fundazio egintzan fundatzaileak adierazitako nahiak, estatutu hauetan ezarritakoak eta bereziki Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legean ezarritakoak izango dira.
2. Ondorioz, eta albo batera utzi gabe Babeslaritzari egin beharreko jakinarazpenak, Fundazioak jarduteko guztizko gaitasuna izango du bere helburuak betetzeko, Kode Zibilaren 38. artikuluan aurreikusitakoa betez. Fundazioak honakoak egin ahal izango ditu:
 - a) Mota guztietako jarduera ekonomikoak gauzatu ahal izango ditu bere helburuak lortzeko edo baliabideak eskuratzeko.
 - b) Titulu eta mota guztietako ondasunak eta eskubideak eskuratu eta besterendu ahal izango ditu eta mota guztietako ekimenak, negozioak eta kontratuak egin ahal izango ditu.
 - c) Bere estatutuekin eta legeekin bat eginez mota guztietako ekintzak gauzatu ahal izango ditu.

3. artikulua.- Helbidea eta lurralde eremua

1. Fundazioak Gasteizen izango du egoitza, Aiztogile kaleko 95. zenbakiko 1. solairuan.
2. Fundazioaren patronatuak estatutuak aldatzeko hartutako erabakien bitartez egoitza lekualdatu ahal izango da, Arabako lurralde historikoaren barruan, eta helbide berria Fundazioen Erregistroan inskribatu beharko da. Era berean, patronatuak izango du eskumena Fundazioaren helburuak betetzeko ezartzen diren establezimenduen, delegazioen edo bulegoen egoitzak zehazteko.
3. Fundazioak Arabako Lurralde Historikoan jardungo du. Orduan, Arabako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak ezarritako araudia bete beharko du. Salbuespen gisa, Lurralde Historikotik kanpoko proiektuetan parte hartu ahal izango da, patronatuak alde zuzenetik hala erabakiz gero.

4. artikulua.- Fundazioaren helburua eta xedeak

1. Fundazioaren xede generikoa da Gasteizko Santa Maria katedrala eta haren hiri ingurunea sendotu, zaharberritu eta osorik birgaitu ahal izatea, horretarako ezarritako gida planeko gidalerroak garatuz, eta katedralari atxikita dauden Fundazioaren jabetzako eraikinen erabilerak kudeatzea, eta jarduerak egitea Arabako Lurralde Historikoaren kultura ondarearen eta sustapen turistikoaren eremuan.

Bestalde, katedralaren eta ingurunearen kudeaketa ez erlijiosoa bere gain hartuko du Fundazioak, indarrean dagoen bitartean.

2. Fundazioak eskura dituen baliabideak erabiliko ditu aipatutako xedeak betetzeko. Hain zuzen, patronatuak urtero onartzen dituen memoria eta programak kontuan izanik, jarduera hauek garatuko ditu, zuzenean edo beste erakunde publiko nahiz pribatu batzuekin elkarlanean:
 - Gida Plana onartu eta garatzea.
 - Egutegiak eta esku hartzeak onartzea, dagokion finantzaketa planaren arabera.
 - Esku hartzeetarako behar diren proiektuak kontratatzea.
 - Esku hartzeetarako beharrezkoak diren obrak eta lanak kontratatzea.
 - Esku hartzeetarako beharrezkoak diren obren eta lanen burutzapenaren jarraipena egitea eta horiek kontrolatzea.
 - Esku hartzeetarako beharrezkoak diren obrak eta lanak finantzatzea.
 - Xede duen jarduera garatzeko tresna materialak sortzen laguntzea.
 - Fundazioaren xedeen esparruan eraturako baliabide materialak kudeatzea.
 - Katedralari atxikita dauden Fundazioaren jabetzako eraikinen erabilerak kudeatzea.
 - Jarduerak, enkarguak eta mandatuak egitea eta Arabako Lurralde Historikoko kultura ondarearen arloan patronatuak onartzen dituen programak garatu eta

kudeatzea, zuzenean edo zeharka, bai eta kultura ondarearekin zerikusia duten ikerketa eta prestakuntza jarduerak ere, horretarako jartzen diren aurrekontuen kontura.

- Adjudikatzeko ahalmenari dagokionez, kudeaketa enkargu edo mandatuak sektore publikoko erakundeei, baliabide berekitzat jo daitezkeenei, egingo zaizkie, azaroaren 8ko 9/2017 Legeak, Sektore publikoko kontratuen Legearen 4; 6; 31 eta 32 artikuluetan edo hori ordeztzen duen arauetan araututako baldintzetan.
- Fundazioaren xedea betetze aldera, patronatuak egokitzat jotzen dituen gainerako ekintzak gauzatzea eta, bereziki, Fundazioaren xedea eta helburuak zabaltzeko ekintza guztiak.

5. artikulua.- Jarduketa eta funtzionamendu printzipioak

Fundazioaren jarduketek honako printzipioekin bat egingo dute:

- a) Publizitatea eta gardentasuna. Fundazioak bere helburu eta jardueretik nahikoa informazio eman beharko du herritarrek eta onuradun posibleek horien berri izateko.
- b) Inpartzialtasuna eta diskriminaziorik eza onuradunak eta jarduerak eta prestazioak zehazterako orduan.
- c) Jarduketa zuzentarauak sustatzea jokoera kodeak eta funtzionamendurako praktika onak sortuz.
- d) Patronatua eratzen duten pertsonen zerbitzurako jarrera izatea eta Fundazioaren interesak norbere interesen edo interes partikularren aurretik jartzea.
- e) Lankidetzeta leiala eta etengabea izatea Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzarekin.
- f) Fundazioaren ondarea eta errentak Fundazioaren helburuetara bideratzeko betebeharra defendatzea eta eraginkortasunez hori betetzen dela babestea, estatutuekin eta indarrean dagoen araubidearekin bat eginez.
- g) Genero berdintasuna.

6. artikulua.- Onuradunak

1- hauek izango dira Fundazioaren prestazio eta zerbitzuen onuradunak:

- lehenik eta behin, Ondare Historiko Arkitektonikoa kontserbatzeko lehentasuna duten pertsona guztiak.
- eta, bigarrenik, Arabako Lurralde Historikoko herritar guztiak.

2- Onuradunak izendatzeko patronatuak honakoak izango ditu kontuan:

- a) Fundazioak pertsona fisiko edo juridikoen kolektibitate generikoei lagundu beharko die. Horiek enpresa bateko eta zenbaitetako langileen eta haien familiako kideen kolektiboak izango dira. Edonola ere, onuradunen kolektiboak aukeratzeko irizpideak objektiboak eta inpartzialak izango dira.

- b) Fundazioaren helburu nagusia ez da izango prestazioak fundatzaileei edo patronatuko kideei, horien ezkontideei edo afektibitate harreman analogoekin horiekiko lotura dutenei edo laugarren mailara arteko (maila hori barne) senideei ematea, ezta helburu nagusiarekin bat egiten ez duten pertsona juridiko bereziei ere.
- c) Inork ezin izango du ez banaka ez modu kolektiboan Fundazioan edo patronatuan onuradunek gozatzeko eskubidea dutela alegatu onurak eman aurretik, eta ezin izango zaizkie onurak pertsona zehatz batzuei egotzi.

II. TITULUA.- FUNDAZIOAREN ORGANOAK

7. artikulua.- Fundazioaren organoak

Hauek izango dira Fundazioaren organoak: Ohorezko presidentetza, patronatua, zuzendari kudeatzailea, zuzendari teknikoa eta Batzorde Zientifikoa.

I. KAPITULUA OHOREZKO PRESIDENTETZA

8. artikulua.- Ohorezko Presidentetza

Fundazioaren Ohorezko presidente izango da Gasteizko Elizbarrutiko gotzain titularra.

II. KAPITULUA PATRONATUA

9. artikulua.- Patronatua

1. Patronatua Fundazioaren gobernu organoa eta ordezkaritza organoa da. Patronatuak Fundazioaren helburuak bete behar ditu, Fundazioaren ondarea osatzen duten ondasunak eta eskubideak arduraz administratu behar ditu eta horien errendimendua eta erabilgarritasuna mantendu behar ditu.
2. Patronatua eginkizunak betetzeko burujabea da; baina, ordenamendu juridikoaren arabera, Babeslaritzak tutore gisa izango du. Horrenbestez, patronatuak baino ez ditu izango Fundazioaren xedeak modu eraginkorrean betetzeko eta estatutu hauek interpretatzeko beharrezkoak diren ahalmen guztiak.
3. Gobernu, administrazio eta ordezkaritzarako ahalmenez baliatuz, patronatuak edozein egintza eta negozio juridiko egin ahal izango du: administrazio arrunta edo apartekoa; xedapenak; eskuraketak, besterentzeak edo kargak; edo beste edozein. Alabaina, salbuespen moduan hartuko dira legearen arabera Babeslaritzaren edo beste agintaritza eskudun baten baimena behar dutenak edo baldintza bereziak ezartzen zaizkienak.

10. artikulua.- Patronatuaren osaera

1. Patronatuak gutxienez lau (4) eta gehienez bost (5) pertsona izango ditu. Patronatua osatzen dutenek derrigorrez ezarritako gutxienerako kide kopurua mantendu beharko dute, hau da, ez dira egongo hiru kide baino gutxiago.

2. Patronatua parte hartu ahal izango dute pertsona fisikoek eta pertsona juridikoek. Patronatua osatzen duten pertsona fisikoek jarduteko guztizko gaitasuna izango dute eta kargu publikoak izateko desgaitu gabe egon beharko dute. Patronatuko pertsona juridikoek organoa ordezkatzeko pertsona fisikoa edo pertsona fisikoak izendatu beharko dituzte.

Patronatuko kide diren pertsona fisikoek beren kargua pertsonalki bete beharko dute. Hala ere, beste patrono bat izendatu ahal izango dute beren izenean eta ordezkartzan jardun dezan ekitaldi jakin batzuetan, eta ordezkariak ordezkatuak idatziz eman dizkion jarraibideak bete beharko ditu. Hala ere, patronatuko kide batek kargu publiko edo pribatu bat duenean, beste pertsona bat izenda dezake bere izenean modu iraunkorrean jardun dezan.

Patronatua pertsona juridikoak ordezkatzeko dituztenak modu egonkorrean arituko dira. Pertsona horiek pertsona juridikoan duten karguagatik izendatzen badira, kargua galtzeak patrono izaera galtzea ekarriko du.

3. Arabako diputatu nagusia edo hark izendatzen duen diputatua izango da Fundazioaren patronatuko presidente.
4. Gasteizko alkatea edo hark izendatzen duen pertsona izango da presidenteordea.
5. Patronatuak beste hauek ere izango ditu:
 - Gasteizko Elizbarrutiko bikario nagusia edo hark eskuordetzen duen pertsona..
 - Arabako Foru Aldundiak izendatutako kide bat, Arabako Foru Aldundiak egoki irizten dionean izendatu eta kargutik kenduko dena.
 - Fundazioari patrono gisa atxikitzen zaion eta 10.3, 10.4 eta 10.5 artikuluetan aipatzen ez den erakunde bakoitzeko ordezkari bat.
6. Arestian aipatutako kide guztiek izango dute hitza eta botoa.
7. Fundazioaren patronatuko berezko karguak hauek izango dira:
 - Arabako diputatu nagusia,
 - Gasteizko alkatea
 - Gasteizko Elizbarrutiko bikario nagusia.
8. Duten karguagatik patronatuko kide diren pertsonak zeregin horretan jarraituko dute patronatuko kide izendatu zirenean zuten kargua betetzen duten bitartean. Patronatuko gainerako kideek izendatzen diren denboran beteko dituzte beren karguak.
9. Patronatuak idazkari bat izendatuko du. Kide horrek hitza izango du, baina ezingo du botorik eman; patronatuak egiten dituen bilkuren aktak egingo ditu, Fundazioaren dokumentazioa gordeko du eta beharrezkoak diren ziurtagiriak eta txostenak egingo ditu. Idazkari hori Foru Aldundiak proposatutako kide bat izango da.
10. Patronatuak laguntzaile izendatu ahal izango ditu Fundazioaren xedeak betetzen laguntzen duten pertsona fisikoak edo erakunde juridikoak, baldin eta Katedrala birgaitzeko laguntza ekonomikorik emateko konpromiso egonkorra badute.

Laguntzaileek hitza izango dute patronatuko bileretan, baina ezin izango dute botorik eman. Gehiengo osoz izendatuko dira.

11. artikulua.- Patronatuko kideak izendatzea eta horiek kargugabetzea

1. Patronatua handitzeko kide berriak gobernu organo horrek izendatuko ditu, kideen gehiengo absolutuaren aldeko botoarekin hartutako erabakiaren bidez.
2. Patronatuak Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan jakinarazi beharko du patronoen izendapena eta kargugabetzea erabakia hartzen denetik edo uko egitetik hiru hilabete pasatu baino lehen.
3. Pertsona horiek berariaz onartu beharko dute kargua Euskal Autonomia Erkidegoko Legearen 16. artikuluan aurreikusitako moduren batean. Uko egiteko artikulua horretako 2. atalean aurreikusitako moduren bat erabili beharko da.
4. Kideak kargugabetzea eskumenak dituen organo judizialak erabaki ahal izango du horien aurka erantzukizun ekintza egikaritzen duenean legean aurreikusitako diligenziarekin kargua egikaritu ez dutelako.
5. Organoaren kideak izendatzea eta kargugabetzea Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatuko da.

12. artikulua.- Patronatuko kideak kargugabetzeko arrazoiak

Fundazioaren patronatuko kideak kargugabetu egingo dira honako inguruabarretan:

- a) Pertsona zendu egin delako edo zentze adierazpena dagoelako edo izaera juridikoa iraungi egin delako.
- b) Desgaitasuna, desgaitasuna edo bateraezintasuna gertatu delako legeak ezarritakoarekin bat eginez.
- c) Patronatuko kideak izateko izendatuak izan ziren kargua utzi egin dutelako.
- d) Ebazpen judizialean hala zehazten baldin bada kargua ordezkari leial gisa gauzatu ez izanagatik.
- e) Erantzukizun ekintza jasotzen duen ebazpen judiziala dela eta.
- f) Agintaldia bukatu delako, denbora zehatz baterako izendatuak izanez gero.
- g) Uko egiteagatik.

13. artikulua.- Patronatuko kideak ordezkatzeko

1- Patronoak ordezkatzeko prozedura hauxe izango da.

- Arabako Foru Aldundiak izendatutako presidentearen eta kidearen kasuan, Arabako Foru Aldundiak aurreikusitakoaren arabera.
- Presidenteordearen kasuan, Gasteizko Udalak xedatutakoaren arabera.
- Gasteizko Elizbarrutiko bikario nagusiaren kasuan, Gasteizko Apezpikutzak aurreikusitakoaren arabera.

- Gerora atxikitako patronoen kasuan, haiek aurreikusten dutenaren arabera.
- 2- Ordezkapena adierazitako moduan ezin bada egin, Fundazioen Legean aurreikusitako estatutuen aldaketa egingo da eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzak izango du behin-behinean Fundazioaren gobernu organoa eta ordezkari organoa osatuko duten pertsonak izendatzeko eskumena, aipatutako estatutuen aldaketa egikaritu arte.
- 3- Patronatuan uneren batean 3 patrono baino gutxiago baldin badaude (kide bakarra dagoen kasuak salbuetsiz), kargua indarrean duten gainerako kideek edo fundatzaileek legean ezarritako gutxienerako kopurua betetzeko behar adina kide izendatu ahal izango dituzte, eta izendapen horiek Babeslaritzari jakinaraziko dizkie 30 eguneko epean.
- 4- Patronoen ordezkariak Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatuko dira.

14. artikulua.- Patronatuaren iraupena

- 1- Patrono karguak iraupen mugagabea izango du.
- 2- Plaza hutsak sortu baldin badira kideren bat zendu egin delako, desgaitasuna, desgaitasuna, zentze adierazpena, bazterketa edo bateraezintasuna egon delako, agintaldia bukatu delako, karguari uko egiteagatik, kargutik kendu delako edo gobernu organoaren kideren bat ordezkari edo kargutik kentzea sortu duen inguruabarren bat gertatu delako, hutsik geratutako lanpostuak patronatuak beteko ditu eta plaza hutsa ordezkarietako prozedurak ezin izango du 6 hilabete baino gehiago iraun.

15. artikulua.- Patronatuko kideen karguaren doakotasuna

- 1- Patronoek doan beteko dute beren kargua. Hala ere, karguan daudela behar bezala justifikatutako gastuak itzuli ahal izango dira.
- 2- Patronatuak Fundazioan berezko eginkizunetatik haratago zerbitzuak ematen dituzten patronoei ordainsaria eman ahal izango die fundatzaileek berriaz hori debekatu ez baldin badute. Erabaki hori, era berean, Babeslaritzak baimendu beharko du hiru hilabeteko epean.

16. artikulua.- Fundazioaren presidentea.

- 1- Presidentea Arabako diputatu nagusia izango da, eta berak egingo dio deialdia patronatuari, bere ekimenez edo hirugarren alderdi batek eskatuta. Hala, gutxienez patronatuko kideei egingo die deialdia, eztabaidak zuzenduko ditu eta erabakiak betearaziko ditu.
- 2- Patronatuko presidentea izango da gobernu organoa guztiz ordezkari duena, eta organo horren kide den heinean Fundazioa ordezkarietako du ekimen guztietan eta patronatuko erabakietatik eta Fundazioaren beste organoetatik eratorritako ekimen eta kontratuetan. Horrez gain, aurkezten diren auzi, espediente, administrazio ekimen,

gobernu ekimen, ekimen judizial eta judizioz kanpoko ekimenetan ere Fundazioa ordezkatu du, eta eskumenak izango ditu helburu hori lortzeko prokuradoreen edo abokatuen aldeko auzietarako eskumen orokorrak emateko.

17. artikulua.- Presidenteordea.

- 1- Presidenteordea Gasteizko alkatea izango da.
- 2- Presidenteordeak presidentea ordezkatu du hura kanpoan edo gaixorik dagoenean, eta haiek adieraztea nahikoa izango da alderdi horiek frogatzeko.

18. artikulua.- Idazkaria.

Arabako Foru Aldundiak proposatuta, patronatuak idazkari bat izendatu ahal izango du. Idazkari horrek bere ardurapean izango du Fundazioko administrazio lanen zuzendaritza, haren dokumentazioa zainduko du eta bileren aktak egingo ditu, zeinak akta liburura transkribatuko baitira onartu ondoren eta presidentearen oniritzia jaso ondoren.

17. artikulua.- Fundazioan lan egingo dutenak

1- Ohiko kudeaketa egikaritzeko kudeatzailetza izendatu ahal izango da, eta kudeatzailetzaren izendapena eta kargugabetzea Babeslaritzari jakinarazi beharko zaizkio. Kudeatzaileari emandako eskumen orokorrak Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatuko dira.

Zuzendari kudeatzaile hori patronatuaren bileretara joan ahal izango da eta hitza bai izango du baina ezin izango du botorik eman; honen kargua ezin izango da bateratu kidearen karguarekin.

Zuzendari kudeatzaile karguak patronatuak ezartzen duen zenbatekoa jaso ahal izango du.

Zuzendari kudeatzaileak funtzio hauek izango ditu:

- a) Fundazioari dagozkion funtsak biltzea eta zaintzea eta finantzak kudeatzea, aurrekontuetan aurreikusitako ordainketak agintzea eta Fundazioaren izenean kontu korronteak edo kreditu kontuak irekitzea.
- b) Patronatuak onetsitako akordioak betetzea eta eman beharreko agiriak formalizatzeko behar diren baimenak eskatzea.
- c) Patronatuari proposatzea langileen izendapenak eta kargugabetzeak, lanaren banaketa eta jaso beharreko ordainsariak.
- d) Patronatuarekin aldez aurretik hitzartuta, Fundazioa ordezka dezake epaiketan edo epaiketatik kanpo.

- e) Fundazioaren kontabilitate orokorra antolatzea eta zuzentzea, aurrekontu arruntak eta bereziak prestatzea eta urteko memoria ekonomikoa eta kudeaketakoa egiteko behar diren datu guztiak eramatea.
- f) Erabaki organoek onartutako akordioak betetzea; jarduera programak betetzeko behar diren zerbitzuak edo lankidetzak kontratatzea, aurrekontuetan aurreikusitakoaren arabera; eta eman beharreko agiriak formalizatzeko behar diren baimenak eskatzea.
- g) Patronatuari inbertsio proiektu eta programak proposatzea, baita finantzaketa beharrak eta alternatibak ere.
- h) Patronatuaren eskuordetze bereziaren bidez, zuzendari teknikoari esleitutako eginkizunak ere bete ahal izango ditu, baita patronatuari dagozkion eta onartzeko erabateko gehiengoa behar ez duten beste guztiak ere. Inola ere ez dira eskuordetuko kontuen eta aurrekontuaren onespena, kudeaketa arruntetik haragoko egintzak edo Babeslaritzaren baimena behar dutenak, ezta fundatzaileak edo estatutuek berariaz debekatzen dituztenak ere.

2- Era berean, Fundazioan organo hauek izango dira, ondoren aipatzen diren eginkizunak betetzeko, eta ezingo dira haien esku utzi Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko Legearen 18. artikuluan aipatzen diren ahalmenak:

A) Zuzendari teknikoa.

Patronatuak zuzendari tekniko baten esku utzi ahal izango ditu Fundazioaren xedeak betetzeko beharrezkoak diren obrak eta lanak zuzentzeko, jarraitzeko eta kontrolatzeko ahalmenak (teknikoak edo profesionalak).

Zuzendari tekniko hori patronatuaren bileretara joan ahal izango da eta hitza bai izango du baina ezin izango du botorik eman; honen kargua ezin izango da bateratu kidearen karguarekin.

Zuzendari teknikoak funtzio hauek izango ditu:

- a) Katedrala eta haren ingurua osorik zaharberritzeko gida planean zehaztutako proposamenak garatzea.
- b) Behar diren esku hartzeen egutegia eta programazioa diseinatzea eta proposatzea.
- c) Lanak kontratatzeko behar diren baldintza teknikoen orriak idaztea.
- d) Proiektuak eta ikerketak egiteko behar diren ekipo teknikoak zehaztea, prestatzea eta koordinatzea.
- e) Batzorde Zientifikoari bere lanerako behar duen informazio teknikoa ematea.
- f) Aholkularitza Batzorde Zientifikoaren ekintza osagarriak garatzea eta ahalbidetzea.
- g) Batzorde Zientifikoaren batzarretan parte hartzea.

- h) Patronatuari aholku teknikoak ematea katedralean eta haren inguruan egiten diren esku hartzeekin zerikusia duen gai orori buruz.
- i) Esku hartzeen urteko memoria idaztea, helburuak betetzea eta haien ebaluazioa egitea.
- j) Halaber, patronatuak eskuordetze bereziz esleitzen dizkion gainerako eginkizunak bete ahal izango ditu.

B) Batzorde Zientifikoa.

1. Patronatuak Batzorde Zientifiko bat izendatu ahal izango du, Fundazioaren xedeari eta helburuei dagozkien zerbitzu eta jardueren arloan ospe handia duten Espainiako nahiz atzerriko profesionalekin; Batzorde horrek kide kopuru aldakorra izango du.
2. Eginkizun hauek izango ditu: patronatuari aholkularitza iraunkorreko zerbitzua ematea Gida Planaren planteamenduaren arabera, Fundazioaren jardueren kalitatea zaintzea eta esku hartzeko ildoak bideratzea.
3. Batzorde Zientifikoak Fundazioaren jardueren urteko ebaluazio bat egin beharko du gutxienez, eta ebaluazio hori Urteko memorian sartuko da. Batzorde Zientifikoaren ordezkaritza batek egon beharko du patronatuaren bileretan, patronatuak hala eskatzen badio.
4. Batzorde Zientifikoko kideek doan beteko dituzte beren karguak, baina Fundazioaren jardueretan egiten dituzten gastu justifikatuak ordaindu ahal izango zaizkie.

18. artikulua.- Patronatuaren eginkizunak

Patronatuaren eginkizunak Fundazioaren gobernuari eta administrazioari dagozkionak dira, eta bereziki honako hauek gutxienez:

- a) Fundazioaren helburuak hobeto lortzeko Fundazioaren ikuspuntua adieraztea.
- b) Edozein izanda ere baliabide ekonomikoak eta finantza baliabideak guztiz administratzea.
- c) Inbentarioa, egoera balantzea, emaitzen kontua eta aurreko ekitaldiko memoria onestea, baita ekitaldi horretako jarduketa planaren likidazioa ere.
- d) Hurrengo ekitaldiko jarduketa plana eta bere azalpen memoria onestea.
- e) Egokiak diren barne araubideko arauak onestea.
- f) Delegazio batzordeak sortzea, kideak izendatzea eta horien eskumenak zehaztea eta hurrengo artikuluekin bat eginez ahalorde orokorrak edo bereziak ematea.
- g) Zuzendariak, kide exekutiboak eta aholkulariak izendatzea eta kargutik kentzea eta behar diren gainerako teknikariak, administrariak, langileak eta urgazleak kontratatzea eta kargutik kentzea, zuzendari kudeatzaileak hala proposatzen duenean.

- h) Ekimen eta kontratu guztiak formalizatzea eta onestea, zibilak, merkataritzakoak, lanekoak, administraziokoak edo bestelakoak, Fundazioaren helburuak ahalik eta hobekien betetzeko.
- i) Goi mailako erabakiak hartu beharreko kasuetan egoki diren proposamenak eskumenak dituzten organoetara eramatea.
- j) Lankidetzaren tekniko eta kualifikatutako langileen prestakuntzako programetan enpresek, erakundeek, organismoek edo partikularrek parte hartzea sustatzea, funtsak eta lankidetzaren hitzarmenak emanez.
- k) Fundazioarentzat egokia denean jaraunspenak, legatuak edo dohaintzak onartzea edo baztertzea, Babeslaritzari horren berri emanaz.
- l) Estatutuak aldatzea fundatzaileen nahiak betetzeko hori egitea beharrezkoa baldin bada.
- m) Fundazioaren inbertsio planak eta aldiaren behingo programak onartu.
- n) Eskura dauden funtsak Fundazioaren helburuetarako erabili.
- ñ) Kide berriak izendatu horretarako ezarri den epearen barruan.
- o) Laguntzailearen maila eman eta kendu.
- p) Fundazioaren Aholkularitza Batzorde Zientifikoko kideak izendatu eta kargutik kendu.
- q) Babeslaritzari jakinarazi beste Fundazio batekin bat egin (edo batu) den.
- r) Fundazioa desegitea onartu eta batzorde likidatzailea izendatu.
- s) Fundazioaren zuzkidura gehitu dadin onartu.
- t) Fundazioaren ordezkaria izan edozein egintzatan, harremanetan eta kontratutan.
- u) Oro har, Fundazioaren administrazioari eta gobernuari lotutako eginkizunak bete, baldin eta zuzendari kudeatzaileari edo zuzendari teknikoari eskuordetu ez bazaizkio.

Halaber, berriaz sortu diren beheragoko maila bateko estamentuei estatutu hauetan ematen zaizkien ardurak patronatuak beretzat hartu ahal izango ditu berriz.

19. artikulua.- Eskumenak eta ahalordeak eskuordetzea

1- Patronatuak eskumenak patronatuko kideei eskuordetu ahal izango dizkie. Edonola ere ezin izango da eskuordetu honakoei buruzko erabakiak hartzea:

- a) Urteko kontuak onestea.
- b) Jarduketa plana onestea.
- c) Estatutuak aldatzea.
- d) Fundazioaren bat egitea, zatitzea, eraldatzea, suntsitzea eta likidatzea.
- e) Pertsona juridikoak eratzeko ekimenak, ekimen horiek helburuei zuzenean lotuta ez baldin badaude.

- f) Beste pertsona juridiko batzuen parte hartze ekimenak edo partaidetzen salmenta, zenbatekoa Fundazioaren aktiboaren % 20 baino gehiagokoa denean.
- g) Fundazioaren aktiboaren % 20 gainditzen duten ondasun edo eskubideen gaineko xedapen egintzak.
- h) Zuzkidura gehitzea eta gutxitzea.
- i) Aktibo eta pasibo guztiak edo horien zati baten bat egitea, zatitzea edo lagatzea.
- j) Sozietateak edo pertsona juridikoak iraungitzeko ekimenak.
- k) Patronatuko kideak autokontratatzea, jarduketa hori errepikakorra ez baldin bada eta aurretiaz Babeslaritzak inguruabar berdinentzako baimena eman ez baldin badu.
- l) Erantzukizunpeko adierazpenak egitea eta formalizatzea.

2- Era berean, patronatuak eskumen orokorrak eta bereziak eman eta indargabetu ahal izango ditu.

20. artikulua.- Patronatuaren betebeharrak

Fundazioaren patronatuko kideek honako betebeharrak izango dituzte:

- a) Fundazioko helburuak betetzea eta betearaztea, legean eta Fundazioaren estatutuetan ezarritakoarekin bat eginez.
- b) Fundazioaren ondarea osatzen duten ondasunak eta eskubideak administratzea eta horien produktibitate osoa mantentzea, kudeaketa onaren irizpide ekonomiko eta finantzarioekin bat eginez.
- c) Karguan ordezkari leial baten arduraz aritzea.

21. artikulua.- Patronatuko kideen erantzukizuna

1- Patronatuko kideek Fundazioan modu solidarioan jardungo dute legearen edo estatutuen aurkakoak diren ekimenen ondorioz sortutako kalte ordainei dagokienez edo kargua egikaritu behar duten diligenziarik gabe egindakoengatik.

2- Ez dute erantzukizunik izango erabakiaren kontra bozkatu dutenek, erabakia hartzen eta betearazten parte hartu ez dutenek, erabakiaren berri eduki ez dutenek, ez eta haren berri eduki arren kaltea saihesteko behar den guztia egin dutenek eta gutxienez haren kontra berariaz azaldu direnek ere.

22. artikulua.- Patronatuaren barne funtzionamendua

1- Patronatuak urtean hiru (3) bilera egingo ditu gutxienez. Urte bakoitzeko lehen sei hilabeteen barruan, urteko kontuak onesteko bilduko da nahitaez; urteko azken hiruhilekoan, hurrengo ekitaldiko jarduketa plana onesteko bilduko da; eta urte

bakoitzeko irailean, patronatuan ordezkatura dauden erakunde publikoei hurrengo ekitaldirako Fundazioaren aurrekontu finantzaketaren beharrak helarazteko.

2- Patronatuaren deialdiak idatziz egin beharko dira eta presidentek onetsitako gai zerrenda jaso beharko dute. Horrez gain, kontuan hartu beharko dira gobernu organoko kideen iradokizunak, eta deialdia bilera baino gutxienez bost (5) egun natural aurretik egingo da, larrialdiko egoeretan salbu; kasu horietan, deialdia 3 egun natural aurretik egin ahal izango da.

23. artikulua.- Eratzea eta erabakiak hartzea.

1- Patronatua baliozkotasunez eratua egongo da lehenengo deialdian patronatuko kideen erdia gehi bat daudenean (titularrak edo ordezkariak).

2- Aurreko paragrafoan adierazitako quoruma biltzen ez baldin bada, patronatua ordubete geroago bilduko da, eta bigarren bilera horretan nahikoa izango da patronatuko edozein kide bertan egotea, gutxienez hiru kide elkartzan badira eta presidentea eta presidenteordea haien artean badaude. Idazkariak edo haren ordezkariak ere bertan egon beharko du.

3- Aurreko paragrafoetan adierazitakoa albo batera utzi gabe, deialdia eginga dagoela ulertuko da eta baliozkotasunez eratua geratuko da patronatuko kide guztiak bertan daudenean eta bilera egitea aho batez onesten dutenean.

4- Erabakiak hartzeko, bileran dauden patronoen gehiengo sinplea beharko da, honako inguruabarren bat gertatzen ez baldin bada:

- a) Aldaketa, bat egite, zatikitze edo iraungitze erabakia. Erabaki horrek patronatuko kide guztien gehiengo osoaren aldeko botoa izan beharko du.
- b) Honako erabaki hauek gehiengo absolutuaren aldeko botoa beharko dute:
 - Kide berria izendatu eta onartzea.
 - Zuzendari kudeatzailea izendatzea eta kargutik kentzea.
 - Zuzendari teknikoa izendatzea eta kargutik kentzea.
 - Komisio edota batzordeak izendatzea eta desegitea.
 - Laguntzaileak izendatzea eta kargutik kentzea.

5.- Batzordeburuaren botoak berdinketak erabakiko ditu.

6- Patronatuko bilera bakoitzean idazkariak akta egingo du, eta, bileraren lekua eta eguna zehazteaz gain, bertaratuak, erabaki diren gaiak eta hartutako erabakien edukia jasoko dira akta horretan.

7- Patronatuko kideak bideokonferentzia bidez edo bestelako komunikabideen bidez bildu ahal izango dira, baita betiere bermatu egin beharko da bileran daudenen identifikazioa, komunikazioaren jarraikortasuna, erabakietan parte hartzeko aukera eta

botoa eman ahal izatea. Halako kasuetan, bilera batzordeburua dagoen tokian egin dela ulertuko da.

8- Aparteko kasuetan, patronatuak erabakiak hartu ahal izango ditu bilerarik egin gabe, betiere informazio eskubidea eta botorako eskubidea bermatzen baldin badira, botoak jaso direla jasotzen bada eta botoen autentikotasuna egiaztatzen bada. Erabakia pertsona juridikoaren egoitzan hartutzat joko da baliozkotasunez emandako azken botoa jasotzen den egunean.

III. KAPITULUA.- FUNDAZIOAREN ARAUBIDE EKONOMIKOA

24. artikulua.- Fundazioaren ondarea

Fundazioaren ondarearen barnean egongo dira hasierako zuzkidura osatzen duten eta balorazio ekonomikoa izan dezaketen ondasun, eskubide eta betebeharrak guztiak eta eratu ondoren eskuratutakoak, zuzkidurari lotuta egon edo ez.

25. artikulua.- Ondare zuzkidura

1- Fundazioaren hasierako ondare zuzkidura izaera horrekin eraketako eskritura publikoan ezarritakoa izango da eta fundatzaileek emandako ondasunek eta eskubideek eratuko dute.

2- Ondorengo ondare zuzkidurak patronatuak onetsi beharko ditu eta urteko kontuetan jasota egon beharko dute.

3- Fundazioak diru sarreren soberakinak Fundazioaren zuzkidura gehitzeko erabili ahal izango ditu.

26. artikulua.- Fundazioaren ondarea gordetzea

1- Fundazioaren ondarea gordetzeko eta zaintzeko honako arauak beteko dira:

a) Fundazioaren ondarea osatzen duten ondasunek eta eskubideek Fundazioaren izenean eta Fundazioaren inbentarioan jasota egon beharko dute, eta, hala badagokio, dagokion erregistroetan inskribatuta.

b) Ondasun higiezinak eta/edo eskubide errealak Fundazioaren izenean inskribatuko dira Jabetza Erregistroan. Inskribatu ahal izango diren gainerako ondasunak dagozkion erregistroetan inskribatuko dira.

c) Baloreak eta eskudirua, jabetza tituluak, gordailu frogagiriak eta jabaria, jabetza, erabilera, luperketa edo Fundazioa titular den beste edozein eskubide egiaztatzen duten gainerako agiriak patronatuak Fundazioaren izenean zehazten duen erakundean gordeko dira.

d) Gainerako ondasun higigarriak patronatuak zehazten duen moduan zainduko dira.

2- Ondasun eta eskubide horiek guztiak inbentarioen liburuan zehaztuko dira, eta liburu hori patronatuaren idazkariaren kargura egongo da. Bertan, eta idazkariak ikuskatuta, ondasunak eta eskubideak identifikatzeko eta deskribatzeko beharrezko inguruabarrak kontsignatuko dira.

27. artikulua.- Betebeharrak ekonomikoak eta kontabilitateari dagozkionak

1. Presidenteak, edo Fundazioaren estatutuen edo patronatuak hartutako erabakiaren arabera dagokion pertsonak, urteko kontuak aurkeztuko ditu. Kontu horiek gobernu

organo horrek onetsi beharko ditu ekitaldia itxi eta gehienez ere sei hilabeteko epean, irabazi asmorik gabeko erakundeei aplikatu beharreko araudiaren arabera.

2. Urteko kontuak onartu eta hurrengo 30 egun naturalen barnean Fundazioaren patronatuak Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistrora bidali beharko ditu sinatutako urteko kontuak horiek gordetzeko. Kontuak, era berean, irabazi asmorik gabeko erakundeentzako kontabilitateari buruzko araubidean aurreikusitako betekizunak bete beharko dituzte.
3. Urteko kontuetan, balantzea, emaitzen kontua, memoria eta aurreko jarduketa planaren likidazioa jaso beharko dira gutxienez. Era berean, patronatuak kontu ikuskaritzaren txostena aurkeztuko du Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko Legean aurreikusitako inguruabarretan.
4. Kontu horietan agertu beharko dute Fundazioaren ondare egoerak, egoera ekonomikoak eta finantza egoerak, urtean zehar egindako jarduerak eta ondarearen kudeaketa ekonomikoak, Fundazioaren helburuek eta legezko xedapenak ezagutzeko eta haiek betetzen direla egiaztatzeko behar direnek.
5. Ekonomia ekitaldia urtekoa izango da eta bat etorriko da egutegi urtearekin.
6. Fundazioak ekitaldi ekonomiko bakoitzerako jarduketa plana sortuko du, eta bertan jasoko dira diru sarrerak eta gastuak modu orekatuan. Plan hori Babeslaritzan aurkeztuko da onesten den urteko azken hiruhilekoan, azalpen memoriarekin batera. Aurrekontuen aurreproiektua onesteko, Aurrekontuei buruzko Foru Arauak eta Arabako Foru Aldundiak emandako xedapenak beteko dira.

28. artikulua.- Fundazioaren baliabideak aplikatzea

1. Fundazioak bere helburuak betetzeko erabili beharko du gutxienez emaitzen kontuko diru sarreren % 70, kontzeptu guztiengatik jasotakoak eta diru sarrerak jasotzeko gastuak kendu ondoren, Fundazioaren helburuak betetzeko izan direnak albo batera utzita. Betebehar hori betetzeko epea emaitza eta diru sarrerak lortu diren ekitaldia hasi eta ekitaldi hori bukatu eta hurrengo hiru urteen arteko epea izango da.
2. Gastuak izango dira zuzenean Fundazioaren ondarea osatzen duten ondasunen eta eskubideen administrazioak sortutakoak eta patronatuko kideei kargua egikaritzean sortu zaizkienak, itzulketa eskubidea dutenak hain zuzen ere.

29. artikulua.- Jarduera ekonomikoak, enpresakoak edo merkataritzakoak egitea

1. Fundazioak, zuzenean edo beste erakunde batzuen bitartez, Fundazioaren helburuak betetzen dituzten edo haien osagarri diren jarduera ekonomikoak, enpresakoak edo merkataritzakoak gauzatu ahal izango ditu. Horretarako eskumena defendatzeko arauak beteko dira.

2. Gainera, beste erakunde batzuetan parte hartuz, jarduera ekonomikoetan esku hartu ahal izango dute gizarte zorren aurrean modu pertsonalean jarduten ez den inguruabarretan.

30. artikulua.- Xedapen edo zergapetze egintzak

1. Fundazioak Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzari jakinarazi beharko dizkio kostubidezko edo doako xedapen egintzak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko Legean adierazitako Fundazioaren ondarearen zati diren ondasunen edo eskubideen zergapetze egintzak.
2. Patronatuak Babeslaritzari aurkeztu beharko dio xedapen edo zergapetze erabakia zuzentasunez hartu dela zehazten duen erantzukizunpeko adierazpena, eta hori gauzatzeko arrazoia eta beharra adierazi beharko ditu, baita eragiketa ez dela Fundazioarentzako kaltegarria ere eta ez duela arriskuan jartzen Fundazioaren bideragarritasun ekonomikoa.
3. Xedapen edo zergapetze egintzen helburu diren ondasunen edo eskubideen merkatuko balioa Fundazioaren aktiboaren % 60 baino gehiagokoa baldin bada, patronatuak, erantzukizunpeko adierazpenarekin batera, profesional independente batek egindako azterketa ekonomikoa aurkeztu beharko du eta azterketa horrek egiaztatu egin beharko du bertan jasotakoa eta bermatu egin beharko du Fundazioaren bideragarritasun ekonomikoa eta eragiketak, irizpide ekonomikoak eta finantzarioak eta merkatukoak betetzen dituela.
4. Adierazitako xedapen edo zergapetze egintzak Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan jasoko dira, albo batera utzi gabe, hala dagokionean, erregistroan inskribatzea. Gainerako xedapen edo zergapetze egintzak Babeslaritzari urtero aurkeztu beharreko memorian jaso beharko dira.

31. artikulua.- Kontu auditoretza.

Fundazioaren kontabilitateari kanpoko auditoretza egingo zaio; hala ere, diru laguntza publikoak jasotzen direnean edo erakundeek bestelako laguntzak ematen dizkiotenean, beste auditoretza batzuk ere egin ahal izango dira

IV. KAPITULUA.- ALDAKETAK, BAT EGITEA EDO DESEGITEA

32. artikulua.- Estatutuak aldatzea

1. Fundazioaren patronatuak estatutu hauek aldatzea erabaki ahal izango du, betiere Fundazioaren helburuak hobeto lortzeko egokia baldin bada eta fundatzaileek berariaz debekatzen ez baldin badute.
2. Estatutuak aldatzeko erabakia arrazoituta hartu beharko da eta patronatuko kideen gehiengo absolutuak aldeko botoa eman beharko du, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatuko da.

33. artikulua.- Beste Fundazio batekin bat egitea

Patronatuak Babeslaritzari proposatu ahal izango dio beste Fundazio batekin edo batzuekin bat egitea, Fundazioaren helburua errespetatuta betiere.

Gehiengo osoz onartu beharko da bat egiteko erabakia.

Bat egitea eskritura publikoan formalizatuko da eta Fundazioen Erregistroan inskribatuko da.

34. artikulua.- Iraungitzea

Fundazioa iraungi egingo da kasu hauetan:

- a) Eratzean ezarritako helburu guztiak betetzen direnean.
- b) Fundazioaren helburua betetzea ezinezkoa denean, albo batera utzi gabe estatutuak aldatzeari, bat egiteari eta zatitzeari buruz Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Legean aurreikusitakoa.
- c) Hala gertatzen denean bat egite edo zatikatzeko prozesu baten ondorioz.
- d) Eraketako eskritura publikoan aurreikusitako inguruabarrak gertatzen direnean.
- e) Legeetan aurreikusitako bestelako inguruabarrak gertatzen direnean.

35. artikulua.- Iraungitze prozedura

- 1 Aurreko artikuluko a) eta b) ataletan ezarritako inguruabarretan, Fundazioa iraungitzeko patronatuak erabakia hartu beharko du eta Babeslaritzak berretsi egin beharko du. Patronatuak erabakirik hartzen ez badu edo Babeslaritzak ez badu berresten, Fundazioa iraungitzeko arrazoitutako ebazpen judizial batek egon beharko du eta Babeslaritzak edo patronatuak hori agindu ahal izango du, kasuaren arabera.
- 2 Aurreko artikuluko e) atalean adierazitako inguruabarra gertatzen baldin bada, arrazoitutako ebazpen judiziala beharko da.
- 3 Erabakia arrazoitu egin beharko da, eta patronatuko kideen gehiengo osoaren aldeko botoak beharko dira.

- 4 Erabakia edo, bestela, arrazoitutako ebazpen judiziala Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatuko da.

36. artikulua.- Likidazioa eta ondare soberakina zertarako erabiliko den

1. Iraungitzen bada, iraungitze horren jatorria bat egiteko prozedura edo iraungitze arrazoiak betetzea ez baldin bada, likidazio prozedura irekiko da, eta prozedura hori patronatuak edo Babeslaritzaren kontrolpeko gobernu organoak izendatutako batzorde likidatzaileak egingo du, salbuetsiz, hala badagokio, arrazoitutako ebazpen judizialean ezarritakoa. Fundazioak izaera juridikoa mantenduko du prozesua bukatu arte, eta aldi horretan zehar Fundazioa “likidazio prozeduran” dagoela jaso beharko da.
2. Likidazioaren ondoriozko ondasunak eta eskubideak honako hauetarako erabiliko dira:
 - a) Pertsona juridiko fundatzaileei emango zaizkie, Fundazioa eratu zenean edo ondoren egindako ekarpenen proportzioan.
 - b) Irabazi asmorik ez duten erakunde publiko edo pribatuei emango zaizkie, interes orokorreko helburuak lortzeko.
3. Aurrekorik ez baldin badago, ondasunak eta eskubideak antzeko helburuak dituzten Fundazioei edo erakundeei emango dizkie Babeslaritzak, egoitza udalerrri berean dutenei lehentasunez, eta, halakorik ez badago, egoitza lurralde historiko berean dutenei.

V. TITULUA – BABESLARITZA ETA FUNDAZIOEN ERREGISTROA

37. artikulua.- Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroa

Fundazio horren eraketa eta legez beharrezkoak diren bere egintza eta negozio juridiko guztiak Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatuko dira.

38. artikulua.- Euskal Autonomia Erkidegoko Babeslaritza

Fundazio hori Euskal Autonomia Erkidegoaren Fundazioen Babeslaritzaren tutoretzaren, aholkularitzaren eta kontrolaren menpe egongo da indarrean dauden legeetan aurreikusitako terminoetan.

39. artikulua.- Zehapen araubidea

Fundazioa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko Legean aurreikusitako zehapen araubidearen menpe dago.

